

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Eusko Legebiltzarrerako 2016ko hauteskundeetarako Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordearen agintaldia luzatzea

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren abuztuaren 1eko 23/2016 Dekretuz, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak deitu dira, eta Hauteskunde Araubide Orokorren Legeak, 15.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak oraindik ez zuen bere agintaldia bukatu ez baita ehun eguneko epea igaro Kongresurako eta Senaturako azken hauteskundeak izan zirenetik, 2016ko ekainaren 26an; hortaz, Hauteskunde Araubide Orokorren Legeak, 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, ulertu behar da batzorde horren eskumena luzatzen dela, eta Eusko Legebiltzarrerako 2016ko hauteskundeetarako Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzorde eratzten dela, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde Legearen 31.1 artikulua arabera.

Batzorde haren agintaldiaren luzapena denez, eta Kongresurako eta Senaturako hauteskunde haietan bazeudenez izendatuta batzordekide ez judizialak deritzenak, hauteskunde haietan izendatuek batzordekide lanak egingo dituzte oraingoetan hauteskunde prozesuaren hasieratik.

Hauteskunde Araubide Orokorren Legearen 14.3 artikulua eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde Legearen 31.1 artikulua arabera, Hauteskunde Batzorde haren erabakiz, zerbitzu eta eskuragarritasun arrazoiak direla eta, erabaki da José Jaime Tapia Parreño magistratua izango dela Hauteskunde batzordeburua Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Iñigo Elizburu Aguirre magistratuaren ordean, azken hau izan baitzen batzordeburua hauteskunde haietan.

Ondorioz, argitaratze ondorioetarako, kide judizial hauek osatzen dute Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordea:

José Jaime Tapia Parreño, Arabako Probintzia Auzitegiko Bigarren Sekzioko magistratua, Hauteskunde batzordeburua.

Iñigo Elizburu Aguirre, Arabako Probintzia Auzitegiko Lehen Sekzioko magistratua.

Edmundo Rodríguez Achutegui, Arabako Probintzia Auzitegiko Lehen Sekzioko magistratua.

Batzordekide ez judizialak:

Arabako Abokatuen Elkargoko letratu hauek:

Eduardo Cervera Arana eta

Jaione Muguruza Lanas.

Batzordeko idazkaria:

M^a Concepcion Urbieto Laviada, Justizia Administrazioako letratu, Arabako Probintzia Auzitegiko Bigarren Sekzioari atxikita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 3a

Batzordeburua

J. JAIME TAPIA PARREÑO